


Beti egon naizen herrira itzultzen

Testua: Iraitz Urkulo
Argazkiak: Txalaparta

Made in Galiza / Sechu Sende (Txerra Rodriguez) / Txalaparta, 2012

Sechu Sendek (Padron, 1972) Colectivo Poético Serán Vencello izeneko poesia taldean hasi zuen bere ibilbide literarioa baina, urteak aurrera, narratibaren arloan jaso du aditu eta irakurleen errekonozimendua. 2003an Blanco Amor saria irabazi bazuen Orixo eleberriarekin, 2007an Galiziako argi taldariak ematen duten Anxel Casal urteko liburu onenaren saria lortu zuen bere azken obrarekin, orain Txalaparta argitaletxeak

euskaraturik dakarkigun *Made in Galiza* ipuin bildumarekin, hain zuzen. Izan ere, euskarazko edizioaren kontrazalean oharitzen zaigunez, testu hau gizarte fenomeno bilakatu da Galizian: hainbat pasarte rekin bideoak eta abestiak grabatu dituzte, komikiak egin dira edota irakaskuntzan erabiltzeko irakurketa gidak argitaratu dituzte, besteak beste.



Esan bezala, *Made in Galiza* hamaika ipuin laburrek osatu tako bilduma gisa aurkezten zaigu, baina saiakera liburua izan zitekeen, idazleak ipuinak eskaintzen dizkion baliabideak eta generoaren fikziozko izaera baliatzen baititu galegoaren errealtate soziolinguistikoaz hausnartzeko edo, berdina dena, bere hizkuntzaren egoeraz duen ikuspegi kritikoa adierazteko. Sechu Sendek gai eta, aldi berean, kezkatzat duen hizkuntza biluzik ageri da orrialdeotan; zentzu honetan, nabaria da testu osoan zehar galegoa eztabaida politikoetatik aldentzeko ahalegina, mezua (hizkuntzaren defentsa, alegia) zikindu eta desitxuratu dezakeen erreferentzia oro saihestuz.

Obra honek, bestalde, galegoz hitz egiten du, guk euskaraz irakurri arren. Ez da lan makala hizkuntza batekiko maitasuna, lilura edota gutxiespena beste hizkuntza



“Hau egitea erabaki nuen zurekin ondo sentitzen nintzelako, zurekin fidatzen nintzelako eta konfiantza ematen zenidalako. Banekielako zuk gauza bera sentitzen zenuela. Jakin bagenekien gurea bizitza osorako izango zela. Zurekin bizi nahi nuela erabaki izana bizitzan egin dudan gauzarik onenetakoa izan da.



batean adieraztea, baina Txerra Rodriguez itzultzailearen esku trebeari esker euskara, oztopo izatetik umun, bide apropos bihurtu zaigu, une batez baino ez bada ere, galegoa eta haren hiztunek osatzen duten eguneroko unibertso konplexuaren esperientzia gazi gozoan murgiltzeko eta, hortaz, komunitate txiki horren partaide sentitzeko. Are gehiago, euskarazko itzulpenak, lan originalak ez duen balio erantsiaz, zeharka eta modu inplizituan bada ere, erronka botatzen digu euskal irakurleoi, galegoa eta euskararen arteko kidetasunak bilatzera bultzatuz. Hizkuntza bakoitzaren berezitasunak albo batera utzita, hizkuntza gutxitu diglosiko bateko hiztun izateak hasiera batean pentsa genezakeena baino askoz gehiago hurbiltzen gaituela onartzera eramango gaituzte ipuinok.

Merkatuan eros daitekeen produktu, ikasgai, belaunaldien arteko komunikaziorako oztopo, gazteentzako aurreiritzi, ironia, amorrurik eta erreprezio iturri, ikerketa serio eta ez hain seriotarako gai, gaixotasun zein botika, autohipnosia eta bestelako metodo surrealisten helburu, isiltasunerako edo harro eta pozik egoteko arrazoi, droga huts edota maitale zintzo... forma anitz hartzen dituzte hitzek eta galego hizkuntzak berrogeita hiru ipuin labur bezain arin hauetan. Ikuspegi aldaketa etengabe eusten du idazleak galegoak bizi duen egoeraren salaketa eta hizkuntza beraren defentsa. Senchu Senderen testu hau, azken batean, norberaren hizkuntzarekiko maitasun sentimendu garaiezin batetik jaiotako delako.

Gogoratzen dut ezagutzen nindutenak asko harritu zirela gu biok elkarrekin ikusteaz. Zerbait arraro egiten ibiliko banintz bezala. Edo debekatutako zerbait. Ez omen zuten ulertzen. Ez zintuzten behar beste ezagutzen. «Berarekin ez zara inora helduko», esaten zidaten. Pittinka-pittinka ohituz joan ziren, eta iritziz aldatzen hasi ziren gu bion aurrera zihola ikusi zutenean. Erratuta zeudela erakutsi genien, eta hori ederto egon zen.

Eskerririk asko esan nahi dizut, bihotz-bihotzez. Eta esan nahi dizut zurekin nagoela, nire hizkuntza baitzara”

MESÓN URETXE
Santutxuko poteo gunean

Eléctrico eta industria instalazioak

J. Ruiz

Instalador
Autorizatuak

- *Obrak, mantentzeak eta reparazioak instalazioak
- *Acumuladores, bateriak eta sistema de energía
- *Porteros automáticos y sistemas de seguridad
- *Aire acondicionado

Plaza de España nº9 bilbo 48004 Bilbo - Fax: 944111953 - Tel: 944119933

Kafe

Mañari

Médico M. Pedro Cortés, 9 - 48006 BILBAO
Telf. 94 411 99 33

BIZKAIA Amalia

92.5	Galaxia
96.7	Dimitri Arriola
97.4	Europa
97.5	Europa
98.1	Europa
102.6	Europa